

# Gerrikoa

Israeldar erria. Jainkoak Zelako ar-emonak alkarregaz! Jainkoak maite dau erri au. Aita da izan be, Israel'en Aita, ta aita batek ezin ezertara be bere semea, bere erria aztu. Israel'ek, baiña, ez eutson sarrí maitasun orri erantzun. Ezta urrik emon be. Gaur ez ete dira, or-emen, antzeko erriak? Jainkoak dauza arriga-

or-emen, antzeko erria. Jeremias igarleak gauza arriga-rria idatzi zitun: **gerrikoarena**, bat. Jeremias'ek lenengo jantzi egin bear eban, gero Eufrates ibai ondo-ko aspe batean gorde. Baiña geroago, Jaunaren beraren aginduz, aren billa joan zanean, ustelduta aurkitu eban, ezertarako gauza etzalari.

Eta Jaunak diño: «Orrela ustel-erazoko ditut Judarren arrokeria ta Jerusalen'en audi-ustea». Zergaitik? Ez ete zan zintzoa Juda? Ez ete zan ona Jerusalen? Azalez bai, baiña ez Jainkoaren aurrean. Erri orreik ez ditue Jaunaren itzak entzun. Biotz-setaz ibilli dira, jainko arrotzak gurtu ta arei burua makurtzera joanik. Gaiztakeri-zulora jausiak dira.

Erri oneik ortaz ezertarako ez dan gerriko lez geratu dira. Jaunak aukeratu zituan, bere izen, ospe ta aintza izan eitezan, Baiña ez dabe entzun nai izan Aren abots leuna,

Edoze:n bidez ibillirik, griña zatarrren leraz jardunaz ustel geratu dira. Ta gerrikoak, bein pirtzildu, dindarrez bete ta usteldu ezkero, eztau ezertarako balio. Erriak be ez dira ezertarako gauza, Jainko-bide tik aldendu ezkero, Ari entzun nai izan ezik. Sutarako egurra lez dira,

Jainkoak, Ien eta orain, beti dabilkigu bardin: bere seme billa. Gu guztiok bere seme-alaba gara; Berak egiñak, Beretzat egiñak. Erriak be Berak egiñak. Kristo, gure Eros-le nausia, gure billa jatsi zan zerutik. Eta gure onerako, errien onerako ibilli zan, atertu barik, zerurreinua zebaltzen; gizonari gaitz miñak osatzenei gizonea zoriontzen, gizonari goseea ita egarrria arintzen, gizonaren billegoa jazten. Labur: on egiten...

Gu goetxoa jainkoak beretzat  
aukeratzen. — Bere etxekoak.  
Bere gendea. — Ma-gerriari gerri-  
koa lotzen. — Ieñ guri be Jain-  
koak bere. — m. Baita gure  
Euskalentzio. — Gu —ta gure  
erria — ibi — a non izatea nai dau.  
Ete gara. — gorriko ustelak?  
Arrokeriaz ta sondeustez beteak,  
bear badan? Arreto jainkoak gur-  
tzen ete duguz? Anaitasuna, bakea  
ta zuzentasuna nai ba'ditugu, gabil-  
tzan Jainkoaren gogozko bidez.

Barrutia